

Metodologia berritzaileak Kirol Irakaskuntza arautuan: Erronka bidezko talde ikasketa

Kirolene Taldea

Kirol Irakaskuntzen Ikastetxe Publikoa, KIROLENE.

Harremanetarako helbide elektronikoa: a.larrinaga@kirolene.net

Arloa: Prestakuntza kirola eta eskola kirola

Laburpena: Kirolene, EAeko Kirol Irakaskuntzetako Ikastetxe Publikoak, metodologia berritzaile baten garapenean murgilduta dago, bertako ikasleek gaur egungo kirol munduak dituen erronkei modu egokiago batean erantzun ahal izateko. Gure helburua, beraiengan zirrara eta interes bereziak piztea da, horrek bultzatuko baitu ikaslea ikasketa prozesu aberasgarri bat martxan jartzera. Metodologia berri honen bereizgarritasun nagusiak honakoak dira:

- 1) Ikasleak beraien ikaste prozesuaren protagonista nagusi bilakatzea eta beraien autonomia areagotzea. Hausnarketa pertsonalari garrantzi handia ematen diogu, gure ikasleek ikuspuntu kritiko bat garatu beharko dute eta, beraien kirol entrenamendu filosofia propioa eraikiz.
- 2) Kirol inguru errealetan (entrenamenduak, klubak, partiduak,...) garatzen diren erronken ebazpenak ikasketa iturri nagusi bilakatzea. Ikasgelan landu eta ematen diren edukiak honetara bideratuta egon behar dira.
- 3) Talde ikasketa jorratzea. Erronken ebazpenak taldean garatuko dira, kurtsoan zehar “gorputz teknikoak” sortuz.
- 4) Irakasleak ikasleen ikasketa prozesuaren gidari bihurtzen dira kurtso osoan zehar.
- 5) Ebaluaketa sistema berritzailea, non prozesuaren ebaluaketa hezigarriak, emaitzen ebaluaketa kalifikagarria ordezkatzeko duen.

Gako-hitzak: Entrenatzaile-ikaslearen autonomia, erronken ebazpena, 360° ebaluaketa, ikasle eta irakasle ikertzaileak

Sarrera: Kirolene, EAeko Kirol Irakaskuntzetako Ikastetxe Publikoak, metodologia berritzaile propio baten garapenean murgilduta dago, bertako ikasleek gaur egungo kirol munduak dituen erronkei modu egokiago batean erantzun ahal izateko. Eraldaketa prozesu hau 2015-2016 ikasturtearen amaieran abiarazi zen, baina 2016-2017 ikasturtea izan da

metodologia berria programa akademikoan barneratu den lehen urtea ikastetxetik eskaintzen diren ikasketa eta modalitate guztietan.

Azken urteetan hezkuntza mundua bizitzen ari den eboluzioak, agerian utzi ditu orain arte erabilitako ohiko metodologiaren ahuleziak, eta honi aurre egiteko, Kirolenen ere, gure ikaste metodologiak erabat aldatzeari ekin diogu. Eraldaketa hau Mondragon Team Academy-n (MTA) eskaintzen del Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntza (LEINN) graduaren metodologia hartuko du eredu moduan.

Metodologia honek 7 urteko esperientzia dauka Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza fakultatearen baitan (gradu zein master formatuan), baina bere jatorria Finlandia-ko TiimiAkademia-tik dator, non 25 urteko ibilbide arrakastatsua duen. 2009an martxan jarri zenetik, 1000 ikasle baino gehiago pasa dira Mondragon Team Academy (MTA) –ren metodologia honetatik, eta h. Gradua amaitzean %1 baino ez da langabezian geratzen ikasketak amaitu eta 3 hilabetetara (ikasten jarraitzea erabakitzen dutenez gain), estatu mailako gradu arrakastatsuenetarikoa bilakatzen zentzu horretan.

TZBZ S.Coop, eraldaketa hau aurrera eramaten laguntzen ari zaigun enpresa, LEINN graduko lehen promoziotik sorturiko enpresa da 2013an, eta bere misioa, metodologia honen onurak beste ingurune batzuetan aplikatzean datza, enpresa eta unibertsitatez kanpoko hezkuntza alorrean nagusiki.

Kirol erakunde guztiek eta hauen baitan dauden pertsonak (entrenatzaile, prestatzaile fisiko, zuzendari, fisioterapeuta,..) gizartean duten zuzeneko eragina abiapuntutzat harturik, Kirolenetik pasatzen diren ikasleak ezin daitezkeela edonolakoak izan ikusi dugu, paper garrantzitsua daukate gure herrialdearen etorkizunean. Pertsona ausartak izan behar dira, proaktiboak, egoera desberdinetara moldatzen direnak, etengabeko hobekuntza pertsonalagatik apustu egiten dutenak eta beste pertsona (guraso, jokalaria, entrenatzaile,..) batzuekin modu eraginkor batean komunikatzeko gai direnak.

Horregatik, Kirolenen daukagun helburua, beraiengan zirrara eta interes berezia piztea da, horrek bultzatuko baitu ikaslea ikasketa prozesu aberasgarri bat martxan jartzera, bere ibilbide profesionalak aurrera egin ahala, beharrezkoa izango duen zerbait hain zuzen.

MTA-LEINN Metodologia berri honen bereizgarritasun nagusiak honakoak dira:

- 1) Ikasleak beraien ikaste prozesuaren protagonista nagusi bilakatzea eta beraien autonomia areagotzea. Hausnarketa pertsonalari garrantzi handia ematen diogu, gure ikasleek ikuspuntu kritiko bat garatu beharko dute eta, beraien kirol entrenamendu filosofia propioa eraikiz ikasketa mailak gora egin ahala.
- 2) Kirol inguru errealean (entrenamenduak, klubak, partiduak,...) garatzen diren erronken ebazpenak ikasketa iturri nagusi bilakatzea. Ikasgelan landu eta ematen diren edukiak

honetara bideratuta egon behar dira. Kirola da gure ikaslekoa benetan motibatzen duena, beraz, kirola gertatzen den tokietara gerturatu nahi ditugu egunerokotasunean. Ikasgelatik kanpo ematen den ikasketa neurtzeko gai izan behar dira honetarako tresna egokiak emanez.

3) Talde ikasketa jorratzea. Erronken ebazpenak taldean garatuko dira, kurtsoan zehar “gorputz teknikoak” sortuz. Modu honetan, etengabeko komunikazio lantzen arituko dira, eta are garrantzitsuagoa dena, beraien artean ere ikasketa aberasgarriagoak martxan jarriko dituzte ikaste helburuak betetzeko helburuarekin.

4) Irakasleak ikasleen ikasketa prozesuaren gidari bihurtzen dira kurtso osoan zehar. Ez da teoria emango duen pertsona jakintsua izango aurrerantzean, ikasleek beraien kabuz gauzak deskubritzen joateko ezagutza minimoa emango duena baizik. Prozedura honetan, 3 ikaste maila eduki beharko ditu kontuan: ikasle bakoitzak modu indibidualean bizi duena, “gorputz tekniko” bakoitzak erronka bakoitzean bizi duena eta ikasgelak bere osotasunean biziko duena. Garrantzitsua da ikaste esperientziak elkarbanatzeko espazioak eraikitzea, non ikasleek beste ikasle batzuegandik ikasi dezaketen, eta baita elkarrekin ezagutza berria sortu ere.

5) Ebaluaketa sistema berritzailea, non ebaluaketa hezigarriak ebaluaketa kalifikagarria ordezkatzeko duen. Modu honetan, emaitzei berei garrantzia emateaz gain, ikasleek biziko duten prozesua ere ebaluatuko dugu, egunerokotasunean gerta daitezkeen ikasketa eta jarrera/izaera eraldaketei merezi duten garrantzia emanez..

Horretarako, 360^a ebaluazioa erabiliko da, non lau aspektu nagusi bereizten diren: norbanakoaren autoebaluazioa, taldekideen ebaluazioa, irizpide konkretu eta helburu akademikoen arabeko ebaluazioa eta ikasketa prozesuaren gidariaren (tutorea) ebaluazioa. Orain arte, irizpide konkretu eta helburu akademikoen arabeko ebaluazioa baino ez genuen burutzen, gehienetan azterketen bitartez. Beraz, 360^o ebaluaketa sistemak, beste hiru faktore kontuan edukitzera eramango gaitu. Metodologiak berak ikaslearekiko eskaintzen duen eguneroko gertutasunaz gain, behin lan akademikoak aurkeztu eta gero,, taldekako ebaluaketa saio bat burutuko da kursto amaieran, norberak bere burua ebaluatu eta gainontzeko taldekideen zein tutorearen aldetik ere *feedback*-a jaso dezaten.

Bestalde, 3. puntuan azaltzen diren taldekako erronkak ere, kurtsoan zehar banatuta egongo dira, beraz, denboran zehar lan desberdinen garapen eta etengabeko ebaluaketa emango da ere.

Bestalde, beste ezaugarrietako bat, lan indibidualaren ebaluaketak (%20-40 kirol modalitatearen arabera), talde lanaren ebaluaketari espazioa uzten diola (%60-80) da.

Parte-hartzaile motak eta kopurua.

Metodologia berria ikastetxean eskaintzen diren kirol modalitate guztietara zabaltzeari ekin diogu 2016-2017 ikasturtean, bakoitzak dituen bereizgarritasunekin, beraz, ildo orokor batzuetan, bi parte hartzaile mota bereiz daitezke prozesuan: Kiroleneren irakaslegoa eta ikasleak berak, Kiroleneren zerbitzuak jasotzen dituztenak.

Irakaslegoa: Irakaslegoak bizi behar duen rol aldaketaren ulermena eta barneratzea funtsezkoa da proiektu honen arrakastarako. Horregatik, Kirolene osatzen duten 29 irakasleak formakuntza/lan dinamika prozesu elkarbanatu baten parte dira orain dela hilabete batzuetatik. Prozesu hauetan, metodologiaren oinarrien inguruko formakuntza jasotzeaz gain, irakaslego ekintzaile bezala lan egitea bilatzen da, beraiek izango baitira metodologiak eskaintzen dituen oinarrizko tresnak beraien errealitatera moldatuko dituztenak.

Modalitatearen eta talde bakoitzean, tandem-ak osatu ditugu bloke espezifikoko irakasle bat eta bloke komuneko beste irakasle bat elkartzuz, modu honetan, kurtso osoan ikasleen egoera lehen eskutik nolakoa den jakin ahalko dute eta. Ezagutza orokorragoa duten bloke komuneko irakasleengatik egiten dugu apustu. (ez du esan nahi bloke komuneko tutoreak bloke komuneko ikasgai guztiak emango dituenik). Foro berri hauen beste helburu bat, modalitate bakoitzeko tandem-ek elkarrengandik ikasi ahal izatea da. Honen arira, esan beharra dago garrantzitsua dela irakaslegoak ere metodologia hau lehen pertsonan bizitzea, ikasleengana irizten den metodologia berriak ez luke eta zentzu larregirik edukiko irakaslegoak berdin funtzionatzen jarraituz gero.

Ikaslegoa: Gure helburu nagusia hauengan inpaktu zuzen bat sortzea da. Urtean 700 ikasle inguru pasatzen dira Kirolenetik kurtso eta titulazio desberdinak ateratzeko helburuarekin.

Esperientziaren deskribapena.

Irakaslego taldea talde ekintzaile bilakatu da, Irakaslegoaren artean bizi dugun esperientzia ikasleekin bizi ahal izatea da helburua eta. 3 mailatako ikasketa presente daude irakaslegoan: indibiduala, taldekoa (modalitate bakoitzeko sorturiko talde edo bikoteak) eta erakunde mailako ikasketa.

Kurtsoa hastean, Ikaste Kontratua garatzen du ikasle bakoitzak, non bere izaeraren inguruan errreflexionatzeaz gain, etorkizunera begira finkatzen dituen helburuak definitzen dituen, modu honetan bere inplikazioa hasiera batetik definitu beharrean. Behin “gorputz teknikoak” sortuta, ikaste kontratu pertsonalak elkarbanatu eta ikaste kontratu kolektiboa garatu behar dute, hau da, talde ikasketa eta izaera helburuak finkatuz. Modu honetan, ikasleak askoz ere inplikatuago daude lehen egunetik, beraien jarrera pasibo izatetik aktibo izatera pasatuz.

Kirol modalitate bakoitzaren dekretuak dakarren betebeharrak kontuan eduki behar izan dira, beraz, metodologia bakarra edukitzea ez da posible izan, modalitate bakoitzak metodologia propio bat garatu behar izan du. Metodologia berri eta pertsonalizatu honetan, departamentu bakoitzeko irakasleak izan da MTA-LEINN metodologiaren oinarriak barneratu eta gero, bere beharretara moldatu behar izan duena, zuzendaritzako gertuko jarraipenarekin.. Metodologia honetan, irakasleak ikaslearen ispilu izan behar da, eta horregatik da garrantzitsua irakasleak, irakasle ikertzaile/ekintzaile zer den izatea lehen pertsonan bizitzea. Ildo hauetan, bi kirol modalitate nagusi bereizi ditugu.

- Talde Kirolak:

Nahiz eta alor handi batean oso antzekoak izan, modalitate bakoitzaren (futbola, areto futbola, eskubaloia eta saskibaloia) dekretuak eraldaketak egitera behartu gaitu erronkak eta ikasgai komunak definitzerako orduan.

1. mailako eta 3.mailako kurtsoen desberdintasunak kontuan edukiz, metodologia ere moldatu egin behar izan dugu. Faktore nagusiak kurtsoen luzera (3-9 hilabete), ikasleen heldutasun maila eta dekretuak dakarren gutxienezko ordu ikasgai orduak dira.

Bloke komunetako, bloke osagarriko eta bloke espezifikoko dekretuko ikasgaiak ikasgai berrietan bateratu dira, erronka desberdinak lantzerantz bideratuta.

- Natura Kirolak: Mendiko eta Negu kirolak, Bela, Urpekaritza... (Bakarkako kirolak):

Bloke espezifikoa metodologia berritzaile batean garatzen ibili izan gara azken urteotan (Mendiko Kirolean), beraz, bloke komunaren eraldaketan zentratu gara gehien bat, bertan taldean garatu beharreko erronkak definituz eta Natura Kirolak batzen duten formakuntza beharrak batu eta bideratuz.

Balorazioa eta ondorioak

Ondorio nagusiagoak abenduan atera ahalko ditugu, lehen pilotuek lehen kurtsoa amaitzean. Guztira 5 taldek amaituko dute 1.mailako kurtsoa data horietarako.

Irakasleak zein ikasle guztien lehen inpresioak oso positiboak izan dira, eta hala komunikatu digute beraien egunerokotasunean.

Gehiago ezagutzeko estekak

www.kirolene.hezkuntza.net

Erreferentziak (Metodologiarekin erlazionaturiko erakunde eta pertsonak)

• **Mondragon Team Academy:**

<http://mondragonteamacademy.com/>

• **Jose Mari Luzarraga** (Mondragon Team Academy-ren sortzailea)

https://www.youtube.com/watch?time_continue=27&v=u5a5o06yFGs

<http://teamlabs.es/es/blog-teamlabs/jose-mari-luzarraga-cofundador-de-mondragon-team-academy-elegido-ashoka-fellow-2015>

• **Tiimi Akatemia**

<http://www.tiimiakatemia.com/en/>

• **Johannes Partanen** (Tiimi Akatemia Finlandia-ko sortzailea eta metodologiaren sortzailea)

<http://www.tiimiakatemia.com/en/materials/johannes-partanen>

• **Tazebaez (TZBZ). Empresa colaboradora**

www.tzbz.coop